

2017/2018 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK DEIALDI OSAGARRIA

ALEGAZIOAK

Hainbat urtetan euskara ikastaroen eredua aldatzeko eskatzen ibili ostean, aldaketak etorri zaizkigu bai, baina txarrerako.

Duela urtebete, aurreko Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak bere burua behartuta ikusi zuen lanpostu hutsean ez zeuden bitarteko langileei ere ikasteko aukera ematera. Hasieran pozik hartu genuen nobedadea, baina handik gutxira konturatu ginen bitarteko langileei ate bat irekitze aldera beste ate batzuk itxi egiten zizkietela titularrei zein bitartekoei.

Izan ere, bitarteko langileentzako eskaintza zabaltzeak diru gehiago eskatuko zukeenez, beste nonbaitetik aurreztu behar zuten.

Jadanik deialdi orokorrean sartu zituzten mugak oraingo osagarrian zehazten joan dira.

Hortaz, honako aldaketa hauek dauzkagu 2017/2018ko ikasturterako:

- 5 orduko ikastaroak murriztea **-ikasturte osorako 36 ikastaro eta kito!**-. Hauxe da Justizia Sailak hartu dituen neurri berrien artean lotsagarriena, denok dakigulako (administrazioak ere ederto daki) liberazioa dela ikasteko sistemarik eraginkorrena. Murrizketa honen ondorioak dira beste guztiak, dena dirua aurreztearren;
- **Lehenengo lauhilekoan 5 orduko ikastaroan aritu duenari ez diote aukerarik ematen ikasten jarraitzeko**, liberaturik behintzat. Hau bai dela ergelkeria, pedagogiaren kontrakoa gainera. Lehenengo lauhilekoan polito ikasten ibili duenari hurrengo lauhilekoan bidea estutu edo moztu? Bere buruari jarri dion mugaz baliatzen da administrazioa apurrak banatzeko, hori bai mixeria!;
- **Barnetegian ikasteko aukera deuseztatu**. Iazko deialdi osagarrian oraindik eskaintzen ziren 5 orduko ikastarotik barnetegira aldatzea eta alderantzizkoa. Jakina, bi lauhileko jarraian hartzea galarazten duen neurriaren logika barruan kokatu behar da;
- Hirureneko edo erdiko **lanaldi murrizketa duenak ez du izango lanorduetan ikasteko baimenik**. Debeku honek mota guztietako ikastaroak hartzen ditu bere baitan. Sekula ikusi gabea dugu arau hau. Hemen arazoa da lanaldi murriztua duenari lanaldi osoan arituko balitz moduan banatzen diotela

zeregina. Kasu gehienetan -ez esateagatik denak- kontziliazioarekin lotuta daude lanaldi partzialek, beraz, neurri berri hau lana, norberaren bizitza eta familia bateratzearen aurkakoa da. Areago, kontuan izanik andreak garela lanaldi murriztua eskatzen dugun gehien-gehien-gehienak, emakumeekiko diskriminazioa dugu hau;

- Kidegoari dagokion (derrigortasun-data izan ala ez) **maila/hizkuntza-eskakizuna lortu (egiazatu ala ez) duen langileak ezin izango du 5 orduko lauhileko liberazioa izan.** Aurreko urteetako deialdietan lehentasun batzuk markatzen zituzten ikastaroak banatze orduan, baina inolaz ere ez zuten debekatzen ikasketa maila lortuta liberaturik ikasten jarraitzea. Oraingo arau murriztaile honekin zuzen-zuzenean baztertzen dituzte baita derrigortasun data duen lanpostuan dauden langileak ere.
- Lehen, 20 eguneko tarte ematen zuten ikastaroa hasi zenetik norbera ikasten hasteko (betiere justifikatzeko arrazoirik badago). **Oraingo deialdiak, aldiz, 10 egun dira eta 5 orduko ikastaroetan 5 zehazten ditu.** Ez dakigu Justizia Sailak, euskaltegiekin kontsultaturik, arrazoi pedagogikoak direla-eta ezarri duten beste murrizketa hau. Baina, baliteke ikastaroari 13 egun beranduago ekiten dion batek aprobetxamendu egokia izatea eta ikasturtea gainditzea. Gainera deialdi orokorrak baditu arauturik aprobetxamendua dela 2 orduko ikastaroetan ordu kopuruaren % 80 eta 5 ordukoetan % 90. Kopuru horiekin bat eginda berdin dio ikastaroa 7 edo 13 egun beranduago hasteak.

Deialdi osagarri honetan lan-itunpeko langileak ere sartuta daudela ikusten dugu. Ez dakigu zergatik batu dituzten bi kolektiboak baina susmoa ez da ona. Aurreko urteetako deialdien aldean, laboralei ere aukerak murriztu nahi ote dizkietela uste dugu.

Gauzak horrela, aspaldi honetan Justizia Sailak euskara ikastaroekin egindako aldaketa guztiak gaitzesten ditu LABek, lanpostu hutsean ez dauden bitarteko langileei ikasteko aukera zabaltzen diena izan ezik.

Badu Justizia Sailak LABek hainbat urtetan zehar egindako eskaeren berri eta, hortaz, jakin badaki daraman norabidean ez gaituela izango bidaide.

2017/11/15